

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Robotak, eskolan zientzia eta teknologia ikasteko erakargarriak

Hezkuntzak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Iruñeko Planetarioak hitzarmen bat izenpetu dute irakasleak prestatzeko eta ikastetxeei materialak lagatzeko

Jueves, 23 de octubre de 2014

Zientzia eta teknologia ikasgaiak erakargarriagoak egiteko robotak zer ahal duten jakinik, Hezkuntza Departamentuak, [Nafarroako Unibertsitate Publikoak](#) (NUP) eta [Iruñeko Planetarioak](#) lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu dute, eta haren helburua irakasleak aparatu horiek erabiltzeko prestatzea da eta ikastetxeei beharrezko materialak lagatzea ikasleekin hezkuntza-proiektuak garatzeko.



Iribas kontseilaria, erdian, Eloísa Ramírez (ezkerrean) eta Javier Lacunzaren (eskuinean) alboan, hitzarmena izenpetzeko unean.

Lankidetzaren hori ez da berria prestakuntzaren plangintza erregulatzeko eta baliabideak kudeatzeko, nahiz eta orain gauzatu den.

Nafarroako edozein ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxek ekimen honetan parte hartzeko eskaera egin dezake. Gaur arte, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hogeita hamar bat ikastetxe eta institutuk ekimenarekiko interesa agertu dute, eta 300 irakaslek baino gehiagok azken urteotan emandako hainbat ikastarotan parte hartu dute. Ekintzak hezkuntza-robotikaren arloan oinarritzen dira oraingoz, beste arlo zientifiko-teknologiko batzuetara zabaltzea aurreikusita dagoen arren.

Programa guztia Iruñeko Planetarioaren berrikuntza-baliabide nahiz teknologia berrien zentroaren inguruan oinarritu da, eta gaur egun 48 robot eta 18 bee-bots (robor sinpleagoak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat) ditu.

Erakunde hori arduratuko da ikastetxeen eskura jarritako robot eta beste zenbait material kudeatzeaz, aretoan bertan erabili ahal izateko nahiz ikastetxeetan bertan; horrez gain, irakasleek jasotako prestakuntzaren zati bat hartuko du, eta azken horren prestakuntzan Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleek laguntzen dute.

Ekimen horren garapena honako hauek izenpetutako hitzarmenean jasota geratu da: Hezkuntzako kontseilari José Iribas; NUPeko Proiektzio

Unibertsitarioko errektoreorde Eloísa Ramírez, eta Kultura, Kirol eta Aisialdiko Azpiegituren Nafarroako Sozietateko (NICDO) zuzendari-gerente Javier Lacunza, Iruñeko Planetarioko arduraduna dena.

Bokazio zientifikoa sustatzea

Hitzarmenaren azken helburua ikasle nafarrengan bokazio zientifikoa sustatzea da, Europako Batzordearen ildoekin bat etorritik; ildo horiek Hezkuntzan teknologia berriak erabiltzearen alde egiten dute ikasleen motibazioa eta irakaskuntza-prozesuen eraginkortasuna handitzeko.

Xede horrekin, Hezkuntza Departamentua ikasgai zientifiko nahiz teknologikoen irakaskuntzako eduki eta metodoen berrikuntza-prozesu batean murgilduta dago.

2012an dagoeneko, Hezkuntzaren Berrikuntza Plan bat sartu zuen Zientzian eta Teknologian, eta haren esparruan sare bat sortu zen; sare hori Lehen eta Bigarren Hezkuntzako hogeita hamar bat ikastetxek osatzen zuten, eta bi ikasleengan talentua sustatzea du xede, horretarako arlo horien berrikuntza metodologikoa, gaien berrikuntza eta antolaketa-berrikuntza eginez.

Orain, hitzarmenak, Nafarroako sare publikoko eta itunpeko sareko irakasleentzat prestakuntza-ekintzak egitea arautzen du, lehen ikasturtean nahiz udan egingo diren ikastaroekin; ikastaro horiek hezkuntzako robotikari eta beste alderdi batzuei lotuta izango dira, esaterako: IKTetan prestatzea eta haiek baliabide didaktiko moduan sustatzea, urtero planifikatuko direnak ikastetxeen prestakuntza-beharren arabera.

Aurrez aurrekoa, erdia aurrez aurrekoa edo online bidezkoa izan ahalko den prestakuntza hori NUPeko Irakasleen Prestakuntzako Maisu eta Master graduetako irakasleentzat ere zabalik izango da, bai eta arlo didaktikoan beren gaitasunak eguneratu nahi dituzten tituludunentzat ere.

Gainera, hitzarmenaren esparruan, NUPeko ikasleek ikasgai zientifiko eta teknologikoen irakaskuntzari lotutako ikasketak, ikasle-praktikak edo ikerketa-proiektuak egin ahalko dituzte.

Bestalde, testuak 2012-2013tik Planetarioak hartzen duen baliabideen zentroaren eginkizunak arautzen ditu. Zehazki, robotak eta materialak ikastetxeei lagatzeko kudeaketaz arduratuko da, bai eta hura aretoan erabiltzeaz ere; erabiltzaileei aurrez aurre eta online bidez aholkuak emateaz; ekipoen mantentze-lanaz, eta zientzia nahiz teknologiako berrikuntza-zentroen sarearekin elkarlanean aritzeaz beren jarduerak egiteko.